



2013



HERRIKO ONDAREA EZAGUTZEKO MODU EZBERDIN BAT:

HERNANIKO IBILBIDE SAREA

**Mendiriz Mendi Elkartea
(Aranzadi Zientzia Elkartea)
(Hernaniko Udala)
(HERNANI 2013)**

HERNANIARROK EZAGUTZEN AL DUGU HERNANI?

Hernaniko Ibilbide Sarearen hastapenei buruz hitz egin nahi badugu, 2007 urtera egin beharko dugu atzera. Urte hartan, Aranzadi Zientzia Elkarteko eta UPV/EHUko iker-tzaileek "Hernaniko natura ondarearen azterketa" izeneko lana burutu zuten Udalarentzat. Lan hone-tatik ondorio ezberdinak atera zituzten. Horietatik bat izenburuan bota dugun galderaren erantzuna: hernaniarrok ez dugu Hernani ondo ezagutzen. Gi-zarte gero eta urbanizatuago honetan, hirigunea ezaguna zaigun arren, Hernaniko baserri eta mendi guneak gero eta urrunago ditugu, gero eta gutxiago

ezagutzen ditugu, eta horrek bere ondorio kaltega-riak ditu, baina bat bereziki azpimarratzekoa: Her-naniko ondarea ez ezagutzea.

ZEIN ONDORIO SOR DITZAKE HERNANIKO ONDAREA EZ EZAGUTZEAK?

Hernaniko ondarearen ez ezagutzak, ondarearekiko gertutasun eza dakar, eta gertutasun ezak, ahaztea. Ehunka urtetan hernaniarren ahotan ibili diren ger-takizun, kondaira, bertso, ipuin eta gertaera histori-koetaz eta toponimoetaz ahazteak Hernaniko onda-rearen desagertzea ekarriko luke.

Udalak garbi izan zuen honen aurrean zerbait egin beharra zegoela eta horrela, Aranzadi Zientzia Elkar-teak, Mendiriz Mendi Elkar-tearekin batera, Hernaniko Ibilbide Sarea osatzea proposatu zuen. Hernaniko Ibilbide Sarea, bat zetorren lortu nahi ziren helburuekin eta moduekin. Hernani, mendiarekiko zaletasun handia duen herria da eta herri urbanizatu denez, ibilbideen eraketak, herrian bertan aisialdiaz gozatzeko aukera ere ematen zuen. Eta noski, Hernaniko ondarearen puntu garrantzitsuenetari-koetatik igarotzen zen bide sare berri baten eratzeak, ondarea hernaniarregana modu atseginean gerturatzea eragingo zuen. Dударik ez zegoen bada: has gaitezen Hernaniko Ibilbide Sarea sortzen!

HERNANIKO IBILBIDE SAREA: SOILIK HERNANIARRONTZAT?

Sarearen eraketak helburu nagusi bat bazuen ere, segituan hasi zitzaizkion helburu gehiago gehitzen. Izan ere, Turismoaren gaiak gero eta indar handiagoa zuen herrian, ezin ziren Hernani ezagutzera etor zitezkeen bisitariak ahaztu. Honela, sarea diseinatzen jarri aurretik, lau helburu nagusi bete behar zituela adostu zen:

- Hernaniko kultura, historia eta natura ondarea ezagutaraztea.
- Aisialdirako aukera berriak eta gune berriak ahalbidetzea.
- Turismo berdea herrira erakartzea.
- Herriko ikastoletan Hernaniko ondarea lantzeko aukerak ematea.



Lau helburu hauek ardatz harturik, ibilbideek izan behar zituzten ezaugarri ezberdinak finkatu ziren:

- Zirkularrak izan behar zuten: gune berean hasi eta bukatu behar zuten.
- Nahiz eta beste udalerrietatik pasa, Hernanin hasi eta bukatu behar zuten.
- Adin ezberdinetako pertsonentzat diseinatuak behar zuten eta zailtasun ezberdineko bideak behar zuten izan.
- Ibilbide bakoitzak, intereseko gune ezberdinetatik pasatu behar zuen.
- Ibilbideek, ahal zen heinean, ezin zuten elkarren artean gurutzatu.
- Ibilbideak ondo balizatuak eta markatuak behar zuten egon.
- Bide bakoitzari buruzko eta pasatzen zen gune bakoitzari buruzko informazioa zekarren esku-orriak atera behar ziren.
- GPS bidezko track-ak hartu behar ziren ibilbide bakoitzarentzat.
- Ibilbide Sareak Interneten, sarean, behar zuen izan.
- Ibilbideak, ezaugarri hauek betetzeaz gain, erakargarriak behar zuten izan.

Helburuak eta ezaugarriak zeintzuk izango ziren erabakita, ibilbidearen diseinuari ekin zitzaion.

HAMAIKA IBILBIDE AUKERATZEKO

Eta honelaxe, Mendiriz Mendi Elkar-teak eta Aranzadi Zientzia Elkar-teak, elkarlanean eta Udalaren laguntzarekin, aurreko helburu eta ezaugarriak beteko zituzten hamaika ibilbide ezberdin diseinatu zituzten. Ezberdinak izanagatik, ordea, bazituzten ezaugarriak komunean, eta honela ibilbide sarea izango zena hiru multzo nagusitan banatzea erabaki zen:


IBILBIDEEN KLASIFIKAZIOA			
	Urdinak	Homologatuak	Libreak
Zenbat ibilbide:	4	3	4
Balizatuta:	Bai	Bai	Ez
Markak:			Ez
Izena:	HIU	PR- / SL-	Ez
Noren ardura:	Hernani	Diputazioa	Hernani
Homologatuak:	Ez	Bai	Ez

- **Ibilbide urdinak:** Aiako Harria Natura Parkearen eremua zapaltzen ez duten ibilbideek osatzen dute eta marka zuri eta urdinez daude margotutak. Hauei dagozkien esku-orriak urdin kolorekoak dira.
- **Ibilbide homologatuak:** Aiako Harria Natura Parkearen eremua zapaltzen duten ibilbideak dira. Euskal Mendizale Federazioak, Foru Aldundiak eskatuta, diseinatu, markatu eta balizatuak dira. Hauei dagozkien esku-orriak lila kolorekoak dira.
- **Ibilbide libreak:** Aiako Harria Natura Parkearen barruan zein kanpoan egonda, balizatu eta markatu gabeko ibilbideak dira. Hauek egiteko esku-orrietako deskribapenak jarraitu behar dira nahi eta nahi ez. Esku-orriak arrosa kolorekoak dira.

MOTA ETA EZAUGARRI EZBERDINEKO IBILBIDEAK, GOZATZEKO ETA IKASTEKO DISEINATUAK

Luzera, malda metatua, iraupena, zailtasuna... kon-tuan eduki beharreko ezaugarriak dira ibilbideak di-seinatzerako orduan. Izan ere, pertsona bakoitzak ez du mendirako joera berdina, ezta zaletasun bera ere. Are gehiago, hezkuntzari eta etxeko txikienei gure on-darea ezagutarazi nahi badiegu, ibilbide motzak eta erakargarriak egon behar zuten, baina goiz osorako mendi buelta handiagora eta gogorragora nahi due-narentzat ere zerbait prestatu beharra zegoen. Bide batzuk, asfaltotik eta herritik gertu, besteak bidezido-rretik eta herritik urrun, ibilbide bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta hori da Hernaniko Ibilbide Sarearen ezaugarri ederrenetariko bat: aukera zabala duela.

HERNANI



Ibilbidea	Izena	Markak	Luzera	Denbora	Igoera
Santa Barbara	HIU-1		7,0 Km.	2:00	300 m.
Sagardotegiak	HIU-2		8,6 Km.	2:00	150 m.
Oindiri bira	HIU-3		8,4 Km.	2:45	285 m.
Urruzuno	HIU-4		8,6 Km.	3:10	450 m.
Epele	PR-Gi 1002		8,6 Km.	2:15	490 m.
Ereñotzu	SL-Gi 1002		4,1 Km.	1:15	240 m.
Oberan	PR-Gi 1001		10,7 Km.	4:00	800 m.
Larregain			3,7 Km.	1:00	192 m.
Osokori bira			11,8 Km.	3:45	810 m.
Latse			5,6 Km.	1:20	283 m.
Aparrain			3,7 Km.	1:15	285 m.

Ibilbide bakoitza banaka azaltzea alferrikako lana litzatekeenez, hemen aurkezten dizuegu ibilbide bakoitzaren ezaugarri nagusiak biltzen dituen taula, irakurleak sarearen deskripzio orokor bat behintzat izan dezan.

HERNANIKO KULTURA, HISTORIA ETA NATURA ONDAREA PAUSUZ PAUSU EZAGUTZEN

Herriko ondarea ezagutaraztea zen helburu nagusienetarikoa eta bideak aukeratzeko orduan ere, pisu handia izan du puntu honek. Arestian aipatu den moduan, diseinaturiko ibilbide bakoitza Hernaniko ondarearen parte den intereseko guneetatik pasatzen da. Ibilbide bakoitzean, gutxienez 3-4 puntu aukeratu dira, kasu batzuetan, agian gehiago ere jartzea bazegoen arren. Hauetaz gozatzeko lekurik hobereana, dudarik gabe, mendia den arren, hemen Hernaniko udalerrian topa daitezkeen gune interesgarri batzuk aurreratu ditugu, irakurleari puntu hauetara joateko tentazioa sortzeko asmoz edo.

Hernani herriko erdigunetik atereaz, edota Ereñotzu, Epele, Latse edo Ugaldetxotik irtenda, Santa Barbara, Akola eta Aparraingo atsedenteku ederrak ezagutzeko aukera izango dugu. Baso ezberdinetatik paseatuko gara: Ezteizar, Pagosarde, Azerilepo eta/edo ezezaguna bezain zabala

den Oberango pagadian barrena galduko gara; eta Mospelango zokoa, Aparrain, Epele eta Ereñotzuko baso misto eta harizti ederrak zeharkatuko ditugu. Bailara malkartsu eta estuetan barneratuko gara. Purgatorio errekek, Usoko errekek eta Epele errekek urteetan zehar sortu dituzten bailaretatik esaterako. Mendi tontor txiki eta era berean ederretara igoko gara, Santa Barbarako gotorlekutik eta/edo ezezagunagoa den Saratsetako lepotik ikus daitezkeen bista ederretaz gozatzeko. Igorin-Akolako estazio megalitikoak igaroko ditugu, edo Muniskue ederrean, dolmenen albotik pasako gara. Hernaniko historia ezagutuko dugu Santa Barbarako gotorlekura igotzean, Latseko fabrikatik igarotzean, edo Fagollagako zubia, karobiak, Txirritaren oroitarria eta Comète sareko monumentua ezagutzean. "Hitz egingo" digute "hitz egin" historiaz Koronelarriko, Argurutzeko eta Jibraltarreko harri bereziek, mugarriek eta artamugarri misterioetsuek. Kultura eta natura aberastasun hau guztia gugandik oso gertu dago, zain, ibilbide hauek eginez guk noiz ezagutuko.

INFORMAZIO GUZTIA ESKU-ORRIETAN ETA HERNANIKO UDALEKO WEBGUNEAN

Bost urte luzeetako lanaren ondoren, 2012ko azaroan, Mendiriz Mendi Elkarteak antolatutako Mendizale Astearen ekitaldi nagusian aurkeztu zitzairen "Hernaniko Ibilbide Sarea" herritarrei. Bertan, jen-



dez betetako Biteri kultur etxeko areto nagusian ibilbide bakoitzari zegozkien azalpenak eman ziren eta hauen esku-orriak banatu zitzaizkien herritarrei.

Herritarrek banaturiko esku-orrietan ibilbide bakoitzari dagokion informazioa ikusi ahal izan zuten. Hala nola, izenburua, kodigoa, marken kolorea, luzera, iraupena, malda, deskripzio orokorra, hasiera puntura iristeko modua, informazio praktikoa, mapa, ibilbidearen deskribapena, utm koordinadak, eta intereseko puntu bakoitzari dagokion informazioa, kokapena mapan eta argazkia.

Esku-orriak doakoak dira eta Hernaniko Biteri kultur etxean aurkitzen den Turismo informazio puntuan daude eskura eta baita Biteri kultur etxeko parean jartzen den Turismo informazio gunean ere. Bestalde, Ereñotzu ingurukoentzat Ereñotzuko Udalean eta tabernan ere lor daitezke eta Epeleko auzotarrek Irubide Jatetxeen dute gunerik gertukoena.

Baina esku-orrietaz gain, ibilbide bakoitzak ere badu bere track-a osatua eta beraz, GPSaren laguntzaz bi-

dea osatu nahi duen edonork, ez du web gunera joan eta deskargatzea baino egin beharrik. Gainera, track-arekin batera, bideari dagokion informazio guztia jaitsi ahal izango du erabiltzaileak doan .pdf formatuan. Hauxe da web gunearen helbidea:

www.hernani.net/eu/herria/ibilbideak

URTE ERDIAN, HERNANITIK MADRIL ETA TOULOUSE-SERA, FERIAZ FERIA

Ibilbide Sarearen bidea oraindik ere motza den arren, urte erdian gure herriko esku-orriek Euskal Herritik kanpoko hiri ezberdinak bisitatu dituzte. Turismo feria ezberdinen aitzakiaz, Iruñan ospatu zen Nafarroako NAVARTUR-en, Donostiako Kursaal-ean ospatu zen SEVATUR-en, Madrilgo FITUR-en eta Toulouse-ko MAHANA-n egon dira Hernaniko ibilbideak, eta nola ez Hernaniko ondarea.

Dudarik ez da, hasiera bateko helburua hernaniarroi gure ondarea erakustea bazen ere, ibilbideen erakargarritasunak inguruko herrikoak eta urrutixeagokoak ere ari dituela erakartzen Uru-meako bailarara. Hilabete batzuk baino ez dituen Hernaniko Ibilbide Sareak hasiera oparoa izan duela esan dezakegu harro.

IBILBIDE SAREA:

HERNANIARRREK HERNANIARRENTZAT EGINA

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu aipatzea, Ibilbide Sarearen eraketan parte hartu duten pertsona guztiak hernaniarrak direla. Hauen ilusioa eta lanerako gogoari esker burutu eta bukatu ahal izan da bost urtetako proiektu luze hau.

Mila esker laguntza eskaini diguten guztiei:

Ibilbide Sarearen diseinua, eraketa eta testuen sorrera:

- Jesus Mari Azkue (Mendiriz Mendi Elkartea)
- Iñaxio Sanz Zalakain (Mendiriz Mendi Elkartea)
- Iñaki Sanz-Azkue (Aranzadi Zientzia Elkartea)

Ibilbide urdinen balizatzea eta markaketa (Mendiriz Mendi Elkartea):

- Jesus Mari Azkue.
- Joxe Miguel Ollo "Kixko".
- Iñaki Zuza.

Hernaniko Udala:

- Gurutze Amigorena (Turismo teknikaria).
- Olatz Urrutibeaskoa (Ingurumen teknikaria).
- Jesus Mari Gómez "Txuso" (Artxibo teknikaria).
- Roxario Pikabea (Landazaina).

Laguntzaileak:

- Jose Zuza "Txé".
- Juan Aginaga.

CONOCIENDO EL HERNANI DESCONOCIDO:

HERNANI EZAGUTUZ



Visita guiada del año 2012.

Durante los cinco años en los que se ha trabajado en la creación de la Red de Senderos de Hernani, el club de montaña Mendiriz Mendi y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, en colaboración con el Ayuntamiento de Hernani, han organizado una visita guiada anual para dar a conocer los recorridos que componen dicha red. Estas visitas guiadas, más conocidas como “Hernani ezagutuz”, han servido, a su vez, para acercar el patrimonio natural, histórico y medio ambiental del municipio a los hernaniarras y a personas interesadas de fuera de Hernani. Para ello se han realizado cuatro salidas que han contado con la colaboración de dos miembros de Aranzadi: el historiador responsable del Archivo del Ayuntamiento, Jesús Mari Gómez “Txuso” y del biólogo Iñaki Sanz-Azkue, ambos hernaniarras.

Además de estas visitas guiadas, enfocadas para adultos, dentro del mismo proyecto, Mendiriz Mendi ha organizado una salida anual por Hernani, destinada a los más pequeños de la casa.

Tanto las salidas para los más jóvenes, como las visitas guiadas organizadas para adultos han sido un verdadero éxito y han contado con muchísima asistencia de gente. Desde 2009 hasta 2012, las visitas guiadas han contado con un mínimo de 81 personas el primer año y un máximo de 130 el último. Las salidas para niños también han ido aumentando año tras año, con 45 niños el primer año y 120 el último.

El proyecto “Hernani ezagutuz” que finalizó en 2012, coincidiendo con la presentación pública de la Red

de Senderos de Hernani, ha demostrado que Hernani tiene un rico patrimonio que debemos conservar y proteger. Pero también nos ha demostrado que el valle del Urumea puede ser un lugar apropiado para atraer a turistas que pueden estar interesados en el turismo activo y en el patrimonio del valle.

HERNANI EZAGUTUZ-EKO AZKEN EKITALDIAN, HERRIKO PARAJERIK EDERRENETARIKOAN UTZI GINTUEN PACO SECOREN OMENEZ:



Hernani ezagutuz
jaialdi ederra
antolatzen da herrian.
Udaletxea, Mendiriz Mendi
ta Aranzadi batian.
Aurten eguna tristea izan da
lagun bat zendu zen mendian.
“Paco” rekin ez gara ahaztuko
bizi garen bitartian.

* * * * *

Antton Garin
(“Txinparta” koadrila)



Aparraingo basoa



Pagosardeko basoa




Latseko fabrika zaharra

**KULTURA ETA NATURA
ABERASTASUN GUZTI
HAU GUGANDIK OSO
GERTU DAGO, ZAIN,
IBILBIDE HAUEK
EGINEZ GUK
NOIZ EZAGUTUKO.**



Argurutzeko harkaitzak




Fagollagako zubia



Jibraltarko harria



Fagollagako fabrika zaharra



Txirritaren orogarria



“Sagastietako lepoa I” trikuharria



zientzia elkartea · society of sciences
sociedad de ciencias · société de sciences